

2019ko ZERGA ORDENANTZAK



AZKOITIKO UDALA

ORDENANZAS FISCALES 2019

AURKIBIDEA

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala Ordenanza fiscal reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.....	È2
Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala Ordenanza fiscal reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del impuesto sobre bienes inmuebles.....	17
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga Impuesto sobre actividades económicas.....	22
Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala Ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.....	26
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala. Ordenanza fiscal reguladora del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras.....	42
Udal-jabari publikoa okupatzeagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskala Ordenanza reguladora de la tasa por ocupación del dominio público municipal.....	52
Zerbitzu publikoak eman eta jarduerak egiteagatiko tasa arautzeko ordenantza Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades.....	68
Zubiaurre-elkargune institutua Instituto Zubiaurre elkargune.....	97
Ur hornikuntza, saneamendu eta azpiegituren tasak Tasas de abastecimiento de agua, saneamiento e infraestructuras.....	113

01.-TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. KAPITULUA: izaera eta zerga-egitatea

1. artikulua.

1. Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga zuzeneko zerga da, eta trakzio mekanikodun ibilgailuen titularitatea zergapetzen du, horien maila, kategoria, potentzia, edukiera eta karga edozein dela ere, baldin eta ibilgailu horiek bide publikoetatik zirkula badezakete. Zirkulazio-baimenak Azkoitia adierazi behar du helbidetzat.

2. Erregistro publikoetan matrikulatutako autoak izango dira bide publikoetan zirkulatzeko gai, erregistro horietan bazarik hartzen ez duten bitartean. Aldi baterako baimena eta matrikula turistikoak dituzten ibilgailuek ere izaera hori izango dute, zerga honen aplikazio-eremuaren baitan.

3. Zergak ez ditu honako hauek zergapetuko:

1. Erregistroetan baja emanda izanik, modeloaren antzintasuna dela-eta erakusketa, ekitaldi edo lasterketatan parte hartzeko baimena jaso duten ibilgailuek, baldin eta izaera horretako ibilgailuetara mugatutako ekitaldiak badira.
2. Trakzio mekanikodun ibilgailuek ataian eramandako atoiak eta erdi-atoiak, baldin eta horien karga erabilgarria 750 kilogramokoa baino handiagoa ez bada.

2. artikulua.

1. Zergatik salbuetsita izango dira:

a) Estatuko ibilgailu ofizialak, Euskal Autonomia

01.-ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE VEHICULOS DE TRACCION MECANICA

CAPITULO I: Naturaleza y hecho imponible

Artículo 1.

1. El impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica es un tributo directo que grava la titularidad de los vehículos de tracción mecánica, aptos para circular por las vías públicas, cualquiera que sea su clase, categoría, potencia, capacidad, y carga cuando conste en el permiso de circulación como domicilio el municipio de Azkoitia.

2. Se considera vehículo apto para la circulación el que hubiere sido matriculado en los registros públicos correspondientes y mientras no haya causado baja en los mismos. A los efectos de este impuesto también se considerarán aptos los vehículos provistos de permisos temporales y matrícula turística.

3. No están sujetos a este Impuesto:

1. Los vehículos que habiendo sido dados de baja en los Registros por antigüedad de su modelo, puedan ser autorizados para circular excepcionalmente con ocasión de exhibiciones, certámenes o carreras limitada a los de esta naturaleza.
2. Los remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica cuya carga útil no sea superior a 750 kilogramos.

Artículo 2.

1. Estarán exentos del Impuesto:

a) Los vehículos oficiales del Estado, de la

Erkidegokoak, Gipuzkoako Foru Aldundikoak eta Gipuzkoako udal-entitateetakoak, Defentsara edo herritarren segurtasunera atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatiko, kontsul-bulego, diplomazia-agente eta karreradun kontsul-funtzionario kreditatuen ibilgailuak, titularrak haien herrialdeetako herritar badira eta identifikazioa agerian badute, eta, betiere, salbuespena elkarrekikoa bada herrialdeen artean, bai hedaduran, bai mailan.

Halaber, salbuespena izango dira nazioarteko erakundeetako ibilgailuak eta haien funtzionarioen edo estatutu diplomatikodun kideen ibilgailuak, baldin eta nazioarteko erakunde horiek egoitza edo bulegoa badute Estatu espainiarrean.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenek xedatutakoaren baitan, salbuespena dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun-laguntzako nahiz zaurituak eta gaixoak garraiatzeko zeregin zuzena duten gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren a) letran aipatzen direnak.

Era berean, salbuespena daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, ezintasuna duten pertsonen izenean matrikulatuak, pertsona horiek bakarrik erabiltzekoak direnean. Salbuespen hau baldintza horiek betetzen diren bitartean aplikatuko da, pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik aplikatuko zaizkie salbuespen horien onuradun diren subjektu pasiboak.

1 ataleko e) letrak aipatzen duen salbuespen horretarako eskubidea izango bada, beharrezkoa da ibilgailua ezintasuna duen pertsonaren erabilera eskusiborako zuzendua egotea. Horrek, beraz, ibilgailuak zirkulatzen duenean beti ezintasuna duena barruan egotera behartzen du.

Salbuespen hau oinarritzen duen baldintza espresuki ez betetzeak, hau da, ezintasuna duen

Comunidad Autónoma del País Vasco, de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de las Entidades Municipales guipuzcoanas, adscritos a la Defensa o a la seguridad ciudadana.

b) Los vehículos de representaciones diplomáticas, Oficinas consulares, agentes diplomáticos, oficinas consulares, agentes diplomáticos y funcionarios consulares de carrera acreditados, que sean súbditos de los respectivos países, externamente identificados y a condición de reciprocidad en su extensión y grado.

Asimismo, los vehículos de los Organismos internacionales con sede u oficina en el Estado Español y de sus funcionarios o miembros con estatuto diplomático

c) Los vehículos respecto de los cuales así se derive de lo dispuesto en tratados o convenios internacionales.

d) Las ambulancias y demás vehículos directamente destinados a la asistencia sanitaria o al traslado de heridos o enfermos.

e) Los vehículos para personas de movilidad reducida a que se refieren la letra a) del anexo II del Reglamento General de Vehículos, aprobado por Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, matriculados a nombre de personas con discapacidad.

Asimismo están exentos los vehículos de menos de 14 caballos fiscales, matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo. Esta exención se aplicará en tanto se mantengan dichas circunstancias, tanto a los vehículos conducidos por personas con discapacidad como a los destinados a su transporte.

Las exenciones previstas en los dos párrafos anteriores no resultarán aplicables a los sujetos pasivos beneficiarios de las mismas por más de un vehículo simultáneamente.

Para tener derecho a la exención a que se refiere la letra e) del apartado 1 es preciso que el vehículo esté destinado al uso exclusivo del discapacitado, lo que obliga a éste a encontrarse siempre a bordo del vehículo cuando circule.

El incumplimiento expreso de la condición sobre la que se sustenta esta exención y que no es otra

pertsonaren izenean matrikulatutako ibilgailuak erabilera eskusiboa ez izatea, Zerga urraketat hartuko da eta 300 euroko diruzko isun finkoaz zigortuko da. Honez gain urte korrontean onarturiko salbuespena indargabetuko da.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek izango dira ezintasuna duten pertsonak:

a) Ehuneko 33 edo gehiagoko eta ehuneko 65etik beherako minusbaliotasuna duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran daudenak, hau da, Minusbaliotasun-maila aitortu, aldarrikatu eta kalifikatzeko Prozedura arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskinean adierazitako baremoko A, B edo C letretan deskribatutako egoeretakoren batean daudenak, edo aipatutako baremoko D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortu dituztenak.

b) Ehuneko 65eko edo gehiagoko minusbaliotasuna duten pertsonak.

Aurreko a) eta b) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago.

Salbuespena daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena.

f) Udal honek garraio publikorako jarritako edo administrazio-emakidapean garraio publikoko

que la del uso exclusivo de los vehículos matriculados a nombre de personas discapacitadas se considerará infracción tributaria y será sancionada con multa pecuniaria fija de 300 euros y con la revocación de la exención otorgada para el ejercicio corriente.

A efectos de lo dispuesto en esta letra, se considerarán personas con discapacidad las siguientes:

a) Aquellas personas que tengan reconocido un grado de minusvalía igual o superior al 33 por cien e inferior al 65 por cien que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en algunas de las situaciones descritas en las letras A, B o C del baremo que figura como anexo III del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para reconocimiento, declaración o calificación del grado de minusvalía, o que obtengan 7 o más puntos en las letras D, E, F, G o H del citado baremo.

b) Aquellas personas con un grado de minusvalía igual o superior al 65 por cien.

A las personas incluidas en las letras a) y b) anteriores que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremo que figura como Anexo 3 del mencionado Real Decreto 1.971/1999, no les será de aplicación el límite de 14 caballos fiscales, siempre que el vehículo se encuentre adaptado para el uso con silla de ruedas.

Quedarán también exentos del impuesto los vehículos cuyos titulares acrediten que tienen a su cargo, por razón de patria potestad, tutela o curatela, a alguna persona con un grado de minusvalía igual o superior al 65%. De ser titulares de más de un vehículo, la exención sólo se aplicará a uno.

f) Los autobuses, microbuses y demás vehículos destinados o adscritos al servicio del transporte

zerbitzura atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak; betiere, bederatziz plaza baino gehiago badituzte, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako Makineriako Inskripzio Kartila duten traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak.

2. Artikulu honetako 1. idatz-zatiaren e) letran aipatzen diren salbuespenak gozatu ahal izateko, ibilgailuen titularrak udalerrri honetan erroldatuta egongo dira, eta zergatik salbuestea eskatuko dute idatziz herritarrak artatzeko bulegoan, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituztela:

2.1. Minusbaliotasuna duten pertsonak gidatutako ibilgailuak:

- Minusbaliotasuna duen pertsonaren izenean dagoen ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Organo eskudunak emandako minusbaliotasun-ziurtagiriaren fotokopia.
- Ibilgailuaren aseguruaren polizaren fotokopia.

2.2. Minusbaliotasuna duten pertsonak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuak:

- Minusbaliotasuna duen pertsonaren izenean dagoen Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Organo eskudunak emandako minusbaliotasun-ziurtagiriaren fotokopia. Ibilgailuaren aseguruaren polizaren fotokopia.
- Ibilgailuaren erabilpenari buruzko zinpeko aitorpena.
- Minusbaliotasuna duten pertsonen guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza egiaztatzen duten agiria.

público en régimen de concesión administrativa otorgada por este Municipio, siempre que tengan una capacidad que exceda de nueve plazas, incluida la del conductor.

g) Los tractores, remolques, semirremolques y maquinaria provistos de Cartilla de Inscripción de Maquinaria Agrícola.

2. Para poder gozar de las exenciones a que se refiere la letra e) del apartado 1 del presente artículo, los titulares de los vehículos, que deberán figurar empadronados en este municipio, solicitarán la exención del impuesto por escrito en la Oficina de atención al ciudadano, acompañando a la petición escrita los siguientes documentos:

2.1. Vehículos conducidos por personas con minusvalía:

- Fotocopia del permiso de circulación del vehículo a nombre de la persona discapacitada.
- Fotocopia del certificado de características técnicas del vehículo.
- Fotocopia del certificado de minusvalía extendida por el órgano competente.
- Fotocopia de la póliza del seguro del vehículo.

2.2. Vehículos destinados al transporte de personas con minusvalía:

- Fotocopia del permiso de circulación del vehículo a nombre de la persona discapacitada.
- Fotocopia del certificado de características técnicas del vehículo.
- Fotocopia del certificado de minusvalía extendida por el órgano competente
- -Fotocopia de la póliza del seguro del vehículo.
- Declaración jurada de uso exclusivo del vehículo por el discapacitado.
- Acreditación de patria potestad, tutela o curatela de la persona con minusvalía.

3. Salbuesteko eskaerak ziurtagiriak kobratzeko borondatezko epea amaitu arte egin ahal izango dira. Geroago egiten diren eskaerek eragina izango dute eskaera egin den zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera.

4. Artikulu honetako 1. idatz-zatiaren f) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak gozatu ahal izateko, interesatuek eskaera bat aurkeztu beharko dute, eta bertan ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adierazi.

III. KAPITULUA: Subjektu pasiboak

3. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, ibilgailua haien izenean ageri denean zirkulazio baimenean, eta, orobat, testamentu-ahalordea erabili gabe duten herentziak, betiere foru arau honetako 1. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenean.

IV. KAPITULUA: Zerga-aldia eta sortzapena

4. artikulua.

1 Zerga-aldia bat dator urte naturalarekin, ibilgailua lehen aldiz eskuratzen edo hari behin betiko baja ematen zaionean izan ezik. Salbuespenezko bi kasu horietan, eskuratzen den egunean hasiko da edo Trafikoko Buruzagitzan behin betiko baja gertatzen denean amaituko da zerga-aldia, hurrenez hurren.

2. Zerga-aldiko lehen egunean sortzapetzen da zerga.

V. KAPITULUA: Zerga-kuota

3. Las solicitudes de exención podrán realizarse hasta que finalice el periodo de cobro voluntario de los recibos. Las solicitudes posteriores surtirán efecto desde el periodo impositivo siguiente a aquel en que se hubiera efectuado la solicitud.

4. Para poder gozar de las exenciones que se refieren las letras f) y g) del apartado 1 del presente artículo, los interesados deberán instar su concesión, indicando las características del vehículo, su matrícula y causa del beneficio.

CAPITULO III: Sujetos pasivos

Artículo 3.

Son sujetos pasivos de este Impuesto, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a cuyo nombre conste el vehículo en el permiso de circulación, así como las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio siempre que reúnan los requisitos previstos en el artículo 1 de esta Norma Foral.

CAPITULO IV: Periodo impositivo y devengo

Artículo 4.

1 El periodo impositivo coincide con el año natural salvo en el caso de primera adquisición o baja definitiva de los vehículos. En estos casos el periodo impositivo comenzará el día en que se produzca dicha adquisición o terminará el día en que se produzca la baja definitiva en la Jefatura de Tráfico, respectivamente.

2. El Impuesto se devenga el primer día del periodo impositivo

CAPITULO V: Cuota tributaria

5. artikulua.

1. Eranskinean adierazitako tarifa-taulari jarraiki ezartzen da zerga.

2. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo horiei behin betiko baja ematen zaienean, hil naturalei erreparatuta hainbanatuko da kuotaren zenbatekoa, eskuratu den edo baja gertatzen den eguneko hila barne hartuta.

Kuota modu berean hainbanatuko da, dagokion erregistro publikoan aldi baterako baja ematen bazaio ibilgailuari, hura lapurtua edo ebatsia izan delako.

3. Aurreko atalean adierazitako tarifak ibilgailuei nola aplikatuko zaizkien erabakitzeko, abenduaren 31ko 114/1999 Foru Dekretuak araututakoari erreparatuko zaio (foru-dekretu horrek ibilgailu-mota desberdinen kontzeptua zehazten eta Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergako tarifaren aplikazio-arauak ezartzen ditu) Berariaz:

a) Zerga honen baitan, zergaren tarifek adierazitako ibilgailu-moten kontzeptua zehazteko, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, II. eranskinean adierazitakoari erreparatuko zaio.

b) Furgoiak, furgonetak, ibilgailu misto moldagarriak eta turismoen deribatuak turismo gisa zergapetuko dira, horien potentzia fiskalari erreparatuta. Hala ere, kamioi gisa zergapetuko dira ibilgailu horiek, 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraia badezakete.

c) Autokarabanak turismo gisa zergapetuko dira, haien potentzia fiskala aintzat hartuta.

Artículo 5.

1. El impuesto se exige con arreglo al cuadro de tarifas que constan en el anexo.

2. En el caso de primera adquisición de vehículos o, en su caso, la baja definitiva de los mismos, el importe de la cuota se prorrateará por meses naturales, incluido el mes al que corresponde el día en que se produzca la adquisición o baja.

También procederá el prorrateo de la cuota, en los mismos términos, en los supuestos de baja temporal en el Registro Público correspondiente por sustracción o robo del vehículo.

3. A efectos de determinar las diversas clases de vehículos para la aplicación de las tarifas indicadas en el apartado anterior, se estará a lo dispuesto en el Decreto Foral 114/1999, de 21 de diciembre, por el que se determina el concepto de las diversas clases de vehículos y las reglas de aplicación de las Tarifas del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica. En concreto:

a) A los efectos de este Impuesto, el concepto de las diversas clases de vehículos relacionadas en las Tarifas del mismo, será el recogido en el anexo II del Real Decreto 2.822/1998, de 23 de diciembre, que aprueba el Reglamento General de Vehículos.

b) Los furgones o furgonetas, los vehículos mixtos adaptables y los derivados del turismo tributarán como turismo, según su potencia fiscal, excepto que los mismos puedan transportar más de 1.000 kilogramos de carga útil, en cuyo caso, tributarán como camión.

c) Las autocaravanas tributarán como turismo según su potencia fiscal.

d) Adierazitako tarifa-etaulak D) puntuan adierazten ditu, oro har, traktoreak. Hala, atoi-kamioiak, obra eta zerbitzuetarako traktoreak eta autopropulsatutako makinak epigrafe horretan sartzen dira, betiere, bide publikoetatik zirkula badezakete trakzio mekanikodun beste ibilgailu batzuek garraiatu edo atoian eraman gabe.

e) Zerga honen baitan, motozikleta gisa zergapetuko dira hiru gurpleko ibilgailuak eta laurizikloak, eta, ondorioz, haien zilindradari erreparatuta ordainduko dute zerga. Ziklomotore gisa zergapetuko dira lauriziklo arinak.

f) Ibilgailu artikulatuek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dute zerga, bai atoi-potentzia daramanak, bai atoian eramandako atoiek eta erdi-atoiek.

g) Zaldi-ingar fiskalen bidez adieraziko da potentzia fiskala, eta azken hori ezartzeko, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, V. eranskinean adierazitakoari erreparatuko zaio.

VI.- KAPITULUA: Hobariak

6. Artikulua

6.1. %70eko hobaria ezartzen da motor elektrikoa duten ibilgailuen kasuan eta %50eko hobaria motor hibridoa duten ibilgailuak.

6.2. %100era bitarteko hobaria, ibilgailu historikoetarako edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzintasuna duten ibilgailuetarako. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

6.3. Zergaren kuotan %75 arteko hobaria ezartzen da, bost plaza edo gehiago dituen eta 16 zaldi fiskaletik beherako potentzia duen turismo bakar baterako familian, baldin eta ibilgailuaren titularra, indarreko legeriak familia ugarizat jotzen duen familia bateko kidea bada.

d) En todo caso, la rúbrica genérica de tractores a que se refiere la letra D) de las indicadas Tarifas. Comprende a los tractocamiones, a los tractores de obras y servicios, así como a las máquinas autopropulsadas que puedan circular por las vías públicas sin ser transportadas o arrastradas por otros vehículos de tracción mecánica.

e) Los vehículos de tres ruedas y cuatriciclos tendrán la consideración, a los efectos de este impuesto, de motocicletas y, por tanto, tributarán por la capacidad de su cilindrada. Los cuatriciclos ligeros, a su vez, tributarán como ciclomotores.

f) En el caso de los vehículos articulados tributarán simultáneamente y por separado el que lleve la potencia de arrastre y los remolques y semirremolques arrastrados.

g) La potencia fiscal expresada en caballos fiscales se establecerá de acuerdo con lo dispuesto en el anexo V del Real Decreto 2.822/1998, de 23 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General de Vehículos.

CAPÍTULO VI: Bonificaciones

Artículo 6.

6.1. Se establece una bonificación de 70% para los vehículos de motor eléctrico y de 50% para los vehículos de motor híbrido.

6.2. Se establece una bonificación del 100% de la cuota tributaria, los vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de veinticinco años, contados a partir de la fecha de su fabricación o, si ésta no se conociera, tomando como tal la de su primera matriculación o, en su defecto, la fecha en que el correspondiente tipo o variante se dejó de fabricar.

6.3. Se establece una bonificación con carácter rogado de hasta el 75 por 100 de la cuota del impuesto a favor de un solo vehículo turismo de cinco o más plazas y con una potencia inferior a 16 caballos fiscales, cuya titularidad recaiga en algún miembro de la familia, en los supuestos en que ésta tenga la consideración de familia

Hobariaren ehunekoa zergaren sortzapen unean erabakiko da, legez aplikatu daitezkeen familia ugariaren kategoriaren arabera, berori behar bezala egiaztatuta betiere, eta turismo familiarraren potentzia fiskala aintzat hartuta, eranskinean azaltzen denaren arabera.

Hobariak familia ugariaren txartelaren iraungipen-epeak agintzen duen iraupena izango du gehienez, eta familia ugari bakoitzeko, ibilgailu bakar batek jasoko du hobaria.

Eskaera hau ez da bateragarria izango, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergan ibilgailu berari egindako beste ezen hobari fiskalekin.

Artikulu honetan arauturiko hobarien eskaerak ziurtagiriak kobratzeko borondatezko epea amaitu arte egin ahal izango dira. Geroago egiten diren eskaerak eragina izango dute eskaera egin den zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera.

Honez gain, atal honetan jasotako hobariak Udal zerga-bilketan familia ugariaren kide guztiak ez du zorrik eduki behar.

Artikulu honetan xedatutako hobariak onartzeko ibilgailuaren titularrak Azkoitian erroldatuta egon behar du.

VII. KAPITULUA: Kudeaketa eta likidazioa.

7. artikulua.

Azkoitiko Udalari dagokio zerga kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, biltzea eta zerga-kudeaketaren baitan emandako egintza administratiboak berrikustea, baldin eta ibilgailuaren zirkulazio-baimeneko helbidea Azkoitiko udalerrian badago.

8. artikulua.

Zerga autolikidazio-erregimenean kudeatzen da,

numerosa de acuerdo con la legislación vigente. El porcentaje de bonificación, se determinará en el momento de devengo del impuesto en función de la categoría de la familia numerosa legalmente aplicable y debidamente acreditada, así como de la potencia fiscal del turismo familiar, según figura en el anexo.

La bonificación tendrá como máximo la duración del plazo de caducidad de la tarjeta de familia numerosa, y sólo se bonificará un vehículo por cada familia numerosa.

Esta bonificación no será compatible con ningún otro beneficio fiscal en el Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica para el mismo vehículo.

Las solicitudes de las bonificaciones reguladas en este artículo podrán realizarse hasta que finalice el periodo de cobro voluntario de los recibos. Las solicitudes posteriores surtirán efecto desde el periodo impositivo siguiente a aquel en que se hubiera efectuado la solicitud.

Para aprobar las bonificaciones reguladas en este artículo todos los miembros de la unidad familiar deben estar al corriente del pago de las deudas en la Recaudación municipal.

Para poder gozar de las bonificaciones a las que se refiere el presente artículo, el titular del vehículo deberá figurar empadronado en el municipio de Azkoitia.

CAPITULO VII: Gestión y liquidación

Artículo 7.

La gestión, liquidación, inspección y recaudación del impuesto, así como la revisión de los actos dictados en vía de gestión tributaria, corresponde al Ayuntamiento de Azkoitia cuando el domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo pertenezca a su término municipal.

Artículo 8.

El impuesto se gestiona en régimen de

zergan alta emanda dauden ibilgailuekiko, haien matrikulazioari eta zirkulazio-baimenari erreparatuta, eta, gainerako ibilgailuena, berriz, udalak urtero egiten duen erroldari jarraituta.

Udaletxean dauden inprimaki normalizatueta egingo dira aitopen-likidazioak. Zerga kalkulatzeko elementuak jasoko dituzte aitopen-likidazioek, eta, haiekin batera, erosketa edo aldaketa kreditatzen duten agiriak, ezaugarri teknikoen ziurtagiria eta subjektu pasiboaren Nortasun Agiri Nazionala edo Identifikazio Fiskaleko Kodea aurkeztu beharko dira.

Aitopen-likidazioa eginda, zerga-kuotaren zenbatekoa entitate laguntzailearen batean sartzeko aukera izango du interesatuak. Ibilgailua matrikulatu baino lehen, bulego kudeatzaileak egiaztatu egingo du ordainketa zenbateko zuzenaz egin dela, eta egiaztapen horren fede emango du aitopen-inprimakian.

9. artikulua.

1. Zerga ordaindu izana kreditatu beharko da Trafikoko Buruzagitzan ibilgailu bat matrikulatzea eskatzeko, zirkulatzeko gaitasunaren ziurtagiria eskatzeko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko.

2. Ibilgailuen titularrek zergaren kobrantzarako aurkeztutako azken ordainagiria ordaindu izana kreditatu beharko dute Trafikoko Buruzagitzan, ibilgailuaren aldaketa jakinarazten badute eta, horren ondorioz, ibilgailuaren sailkapena aldatzen bada zergaren baitan. Halaber, ordainketa hori egin izana kreditatu beharko dute, ibilgailuak eskualdatzeko, ibilgailuko zirkulazio-baimeneko helbidea aldatzeko edo ibilgailuari baja emateko. Horrek ez du eragotziko, ordea, kobrantzara

autoliquidación respecto a los vehículos que son alta en el impuesto como consecuencia de su matriculación y autorización para circular, y el resto de vehículos a través del Padrón anual confeccionado por el Ayuntamiento.

Las declaraciones-liquidaciones se efectuarán en los impresos normalizados obrantes en el Ayuntamiento. Estas declaraciones-liquidaciones contendrán los elementos necesarios para su cálculo, y se presentarán junto con la documentación acreditativa de su compra o modificación, el certificado de sus características técnicas y el Documento Nacional de Identidad o el Código de Identificación Fiscal del sujeto pasivo.

Provisto de la liquidación-declaración, el interesado podrá ingresar el importe de la cuota del impuesto resultante de la misma en una entidad colaboradora. En todo caso, con carácter previo a la matriculación del vehículo, la oficina gestora verificará que el pago se ha efectuado en la cuantía correcta y dejará constancia de la verificación en impreso de declaración.

Artículo 9.

1. Quienes soliciten ante la Jefatura de Tráfico la matriculación, la certificación de aptitud para circular o la baja definitiva de un vehículo, deberán acreditar, previamente, el pago del Impuesto.

2. Los titulares de los vehículos, cuando comuniquen a la Jefatura de Tráfico la reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación a efectos de este Impuesto, así como también en los casos de transferencia, de cambio de domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo, o de baja de dichos vehículos, deberán acreditar previamente ante la referida Jefatura de Tráfico el pago del último recibo presentado al cobro del Impuesto, sin perjuicio de que sea

aurkeztu diren eta preskribatu gabe dauden zor guztien ordainketa kudeaketaren eta ikuskapenaren bidez eskatzeko aukera, zor horiek sortzapetuta egon eta likidatuak izan daitezkeen neurrian. Ordainketa kreditatzeko betebeharretik salbuetsiko dira 15 urte edo gehiago dituzten ibilgailuen behin betiko bajak.

3. Trafikoko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen bajako edo eskualdaketako espedienterik izapidetuko, baldin eta ez bada, aurrez, zerga ordaindu izana kreditatzen.

10. artikulua.*

Ezabatuta

VIII. KAPITULUA: Betebehar formalak eta zerga-betebeharrak.

11. artikulua.

Zerga honen eraginpeko ibilgailuen titularrek Trafikoko Buruzagitzan egin behar dituzte zirkulazio-baimenean adierazten den helbidea haien ohiko bizilekuarekin bat etortzeko egin beharreko tramiteak.

IX. KAPITULUA: Erroldak

12. artikulua.

1. Matrikulatutako ibilgailuek edo zirkulaziorako baimena jasota dutenek martxoaren 2tik apirilaren 17a bitartean ordainduko dute zergaren urteko kuota; hala, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktuen bidez iragarriko dira ordainketa epe hori.

exigible por vía de gestión e inspección el pago de todas las deudas por dicho concepto devengadas, liquidadas, presentadas al cobro y no prescritas. Se exceptua de la referida obligación de acreditación el supuesto de las baja definitivas de vehículos con 15 o más años de antigüedad.

3. Las Jefaturas de Tráfico no tramitarán los expedientes de baja o transferencia de vehículos si no se acredita previamente el pago del Impuesto.

Artículo 10.*

Suprimido

CAPITULO VIII: Obligaciones formales y tributarias.

Artículo 11.

Los titulares de vehículos objeto de este Tributo deben tramitar en la Jefatura de Tráfico la adecuación del domicilio que conste en el permiso de circulación al de su residencia habitual.

CAPITULO IX: Padrones

Artículo 12.

1. En el caso de vehículos ya matriculados o declarados aptos para la circulación, el pago de las cuotas anuales del impuesto se realizará del 2 de marzo al 17 de abril anunciándolo por medio de Edictos publicados en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Aurreko epigrafean araututakoa betetzeko, urteko eroldaren sistema erabiliko da zerga-kuotak biltzeko. Trafikoko erregistro publikoaren datuak erabiliko dira eroldan aldaketak egiteko.

3. Errolda edo zergako matrikula jendaurrean erakutsiko da kobratze-epea hasteko eguna baino hilabete lehenago, interesatu zilegiek hura aztertu eta alegazioak egin ditzaten, egoki iritziz gero.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko da jendaurreko erakustaldi-epea, eta subjektu pasiboei egindako likidazioaren jakinarazpentzat joko da iragarki hori.

X. KAPITULUA: Itzulketak

13. artikulua.

Zerga sortzapetu ondoren ematen bazaio behin betiko baja ibilgailuari eta zerga-kuota jada ordainduta badago, udalak ofizioz itzuliko du haren zenbatekoaren zati proportzionala. Zati hori kalkulatzeko, ordenantza fiskal honen 5. artikuluko 2. puntuan araututako hainbanaketa egingo da.

14. artikulua. Xedapen gehigarria.

11/1989 Foru Arauak araututako betez, zerga honetan aplikatzekoak izango dira zerga-alorreko kudeaketa, likidazio, ikuskapen, bilketa eta arau-hauste nahiz zehapenei buruzko xedapenak, zerga-alorreko foru-arau orokorrak araututakoak.

15. artikulua. Azken xedapena.

2014ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean bai ordenantza hau, bai ordenantza honen eranskina, eta indarrean iraungo dute harik eta indargabetzen edo aldatzen diren arte.

2013ko urriaren 30ean onartu zen behin betiko

2. En el supuesto regulado en el apartado anterior, la recaudación de las cuotas correspondientes se realizará mediante el sistema de padrón anual. Las modificaciones del padrón se fundamentarán en los datos del Registro Público de Tráfico.

3. El padrón o matrícula del impuesto se expondrá al público durante el mes anterior al día de inicio del período de cobro, para que los interesados legítimos puedan examinarlo y, en su caso, formular las reclamaciones oportunas.

La exposición al público se anunciará en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y producirá los efectos de notificación de la liquidación a cada uno de los sujetos pasivos.

CAPITULO X: Devoluciones

Artículo 13.

Cuando la baja definitiva del vehículo se produzca con posterioridad al devengo del impuesto, y ya haya sido satisfecha la cuota, el Ayuntamiento procederá de oficio a la devolución del importe que, por aplicación del prorrateo previsto en el apartado 2º del artículo 5 de la presente Ordenanza Fiscal, le corresponda percibir.

Artículo 14. Disposición Adicional

De conformidad con la Norma Foral 11/1.989, son de aplicación a este impuesto las normas sobre gestión, liquidación, inspección, recaudación e infracciones tributarias y sanciones, reguladas en la Norma Foral General Tributaria.

Artículo 15. Disposición final.

La presente Ordenanza surtirá efectos a partir del 1 de enero de 2.014, y seguirá en vigor en tanto no se acuerde su derogación o modificación.

La Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto

trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala eta haren baitan kokatzen den eranskina.

2.4 eta 6 artikulua hauek 2018ko irailaren 26ko Osoko Bilkuran onartu ziren eta 2019ko urtarrilaren 1an sartuko dira indarrean. (GAO 2018/11/30).

Eranskina 2018ko irailaren 26ko Osoko Bilkuran onartu zen eta 2019ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. (GAO 2018/11/30).

6.3 artikulua hau 2017ko irailaren 27ko Osoko Bilkuran onartu zen eta 2018ko urtarrilaren 1an sartuko da indarrean. (GAO 2017/11/24).

6 artikulua hau 2016ko urriaren 26ko Osoko Bilkuran onartu zen eta 2017ko urtarrilaren 1an sartuko da indarrean. (GAO 2016/12/26).

* 10 artikulua hau 2014ko azaroaren 27ko Osoko Bilkuran onartutako zergen eta toki zuzenbide publikoko beste dirusarrera batzuen kudeaketa eta bilketa arautzen duen Ordenantza orokorrak ezabatu du, GAO n iragarri eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean. (GAO 2015/01/26).

sobre Vehículos de Tracción Mecánica, de la que el Anexo es parte de ella, quedó aprobada el 30 de octubre de 2.013.

Los artículos 2.4 y 6 se aprobaron en el Pleno del 26 de septiembre de 2018, entrando en vigor el día 1 de enero de 2019. (BOG 30/11/2018).

El anexo se aprobó en el Pleno del 26 de septiembre de 2018, entrando en vigor el día 1 de enero de 2019. (BOG 30/11/2018).

El artículo 6.3 se aprobó en el Pleno del 27 de septiembre de 2017, entrando en vigor el día 1 de enero de 2018. (BOG 24/11/2017).

El artículo 6 se aprobó en el Pleno del 26 de octubre de 2016, entrando en vigor el día 1 de enero de 2017. (BOG 26/12/2016).

* Este artículo 10 ha sido suprimido por la Ordenanza General de Gestión y Recaudación de los Tributos y otros Ingresos de Derecho Público Locales aprobada en el pleno del 27 de noviembre de 2014, entrando en vigor el día siguiente al de su publicación. (BOG 26/01/2015).

ERANSKINA

01.01.- Trakzio mekanikozko ibilgailuaren gaineko zerga. Tarifak

ANEXO

01.01.- Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica. Tarifas.

01.01.001 - Turismoak		01.01.001 - Turismos	
9 zaldi fiskaletik beherakoak	41,54 €/urteko €/anual	De menos de 9hp. fiscales	
9tik 11,99ra bitartekoak	85,42 €/urteko €/anual	De 9hp.fiscales hasta 11,99 hp. fiscales	
12tik 13,99ra bitartekoak	142,36 €/urteko €/anual	De 12hp.hasta 13,99 hp. fiscales	

14tik 15,99ra bitartekoak	199,31 €/urteko €/anual	De 14hp. hasta 15,99hp fiscales
16tik 19,99ra bitartekoak	259,01 €/urteko €/anual	De 16hp hasta 19,99hp fiscales
20 zaldi fiskaletik gorakoak	333,43 €/urteko €/anual	De 20 en adelante

01.01.002 - Autobusak		01.01.002 - Autobuses
21 jarleku baino gutxiagokoak	197,32 €/urteko €/anual	De menos de 21 plazas
21etik 50era bitartekoak	281,03 €/urteko €/anual	De 21 a 50 plazas
50etik gorakoak	351,28 €/urteko €/anual	De más de 50 plazas

01.01.003 - Kamioiak		01.01.003 - Camiones
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	100,15 €/urteko €/anual	De menos de 1.000 kg. de carga útil
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	197,32 €/urteko €/anual	De 1.000 kg. hasta 2.999 kg. de carga útil
2.999 kilotik gorako eta 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	281,03 €/urteko €/anual	De más de 2.999 kg. hasta 9.999 kg. de carga útil
9.999 kilotik gorako karga erabilgarria dutenak	351,28 €/urteko €/anual	De más de 9.999 kg. de carga útil

01.01.004 - Traktoreak		01.01.004 - Tractores
16 zaldi fiskaletik beherakoak	41,86 €/urteko €/anual	De menos de 16 c.v. fiscales
16tik 2era bitartekoak	65,78 €/urteko €/anual	De 16 a 25 c.v. fiscales
25etik gorakoak	197,32 €/urteko €/anual	De más de 25 c.v. fiscales

01.01.005 - Atoiak eta erdiatoiak, trakzio mekanikoko	01.01.005 - Remolques y semirremolques arrastrados por
--	---

ibilgailuek aramenda		vehículos de tracción mecánica	
1.000 kg-tik beherako eta 750 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	41,86 €/urteko €/anual	De menos de 1.000 kg. y más de 750 kg. carga útil	
1.000 eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	65,78 €/urteko €/anual	De 1.000 kg. hasta 2.999 kg. de carga útil	
2.999 kilotik gorako karga erabilgarria dutenak	197,32 €/urteko €/anual	De más de 2.999 kg.	

01.01.006 - Beste ibilgailu batzuk		01.01.006 - Otros vehículos	
Ziklomotoreak	10,47 €/urteko €/anual	Ciclomotores	
125 cm ³ bitarteko motozikletak	10,47 €/urteko €/anual	Motocicletas hasta 125 c.c.	
125 eta 250 cm ³ bitarteko motozikletak	17,93 €/urteko €/anual	Motocicletas de más de 125 hasta 250 c.c.	
250 eta 500 cm ³ bitarteko motozikletak	35,89 €/urteko €/anual	Motocicletas de más de 250 hasta 500 c.c.	
500 eta 1.000 cm ³ bitarteko motozikletak	71,75 €/urteko €/anual	Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 c.c.	
1.000 cm ³ -tik gorako motozikletak	136,79 €/urteko €/anual	Motocicletas de más de 1.000 c.c.	

01.02.- HOBARIAK

01.02.- BONIFICACIONES

01.02.001 - Hobariak		01.02.001 - Bonificaciones	
1. Motor elektrikoa duten ibilgailuak	70 %	1. Vehículos con motor eléctrico	
2. Motor hibridoa duten ibilgailuak	50 %	2. Vehículos con motor híbrido	
3. Ibilgailu historikoetarako edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzintasuna duten ibilgailuetarako	100 %	3. Vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de veinticinco años	
4. FAMILIA UGARIA		4. FAMILIA NUMEROSA	
4.1. KATEGORIA BEREZIA: 12 zaldi fiskaletik beherakoa	75 %	4.1. CATEGORÍA ESPECIAL: menor de 12 CF	
4.2. KATEGORIA BEREZIA: 12tik 13,99ra bitartekoa	65 %	4.2. CATEGORÍA ESPECIAL: Entre 12 CF y 13,99 CF	
4.3. KATEGORIA BEREZIA: 14tik 15,99ra bitartekoa	55 %	4.3. CATEGORÍA ESPECIAL: Entre 14 CF y 15,99 CF	
4.4. KATEGORIA OROKORRA: 12 zaldi fiskaletik beherakoa	50 %	4.4. CATEGORÍA GENERAL: menor de 12 CF	
4.5. KATEGORIA OROKORRA: 12tik 13,99ra bitartekoa	40 %	4.5. CATEGORÍA GENERAL: Entre 12 CF y 13,99 CF	
4.6. KATEGORIA OROKORRA: 14tik 15,99ra	30 %	4.6. CATEGORÍA GENERAL: Entre 14 CF y 15,99	

bitartekoa

CF

02.-ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gainerako Zergari buruzkoak, 14.3. artikularen bidez ematen dion baimena erabilita, zerga honen zerga-tasa ezartzen du, hurrengo artikuluan adierazitako moduan.

II. ZERGA-TASAK

2. artikulua.

1.- Hiri-ondasunei 001 ERANSKINEAN adierazitako zerga-tasa aplikatuko zaie Ondasun Higiezin gainerako Zergan.

2.- Landa-ondasunei 001 ERANSKINEAN adierazitako zerga-tasa aplikatuko zaie Ondasun Higiezin gainerako Zergan.

III. ZERGA-OINARRIA ETA KUOTAK

3. artikulua.

1.- Katastro-balioa izango da hiri-ondasunek Ondasun Higiezin gainerako Zergan izango duten zerga-oinarria.

2.- Arauz onartutako katastro-balioa izango da landa-ondasunek Ondasun Higiezin gainerako Zergan izango duten zerga-oinarria.

02.-ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, haciendo uso de la autorización que confiere el art. 14.3 de la Norma Foral 12/1.989, de 5 de Julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, fija el tipo de gravamen de este Impuesto en los términos que se establecen en el artículo siguiente.

II. TIPOS DE GRAVAMEN

Artículo 2.

1.-El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los Bienes de naturaleza Urbana queda fijado en el tanto por cien que se indica en el ANEXO 001.

2.-El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los Bienes de naturaleza Rústica, queda fijado en el tanto por cien que se indica en el ANEXO 002.

III. BASE IMPONIBLE Y CUOTAS

Artículo 3.

1.-La Base Imponible del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicado a los Bienes de naturaleza Urbana, estará constituido por su valor catastral.

2.-La Base Imponible del Impuesto de Bienes Inmuebles aplicable a los Bienes de naturaleza Rústica, estará constituido por el valor catastral reglamentariamente aprobado.

3.- Aurreko ataletan adierazitako zerga-oinarriei dagokien zerga-tasa aplikatuta zehazten da zerga-kuota. Ordenantza honetako 2. artikulua ezartzen ditu zerga-tasak.

4. Artikulua. Errekargua*

Ezabatuta.

5. artikulua. Errekarguaren salbuespenak*

Ezabatuta.

IV. KUDEAKETA-ARAUAK

6. artikulua.

1.-Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utz daitezke zerga honi dagozkion kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapeneko ahalmenak. Eskuordetze horren xedapenak, edukia eta norainokotasuna udalbatzak zehaztuko ditu, eta hitzarmena egingo da aldundiarekin.

2.-Udalbatzaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

V. HOBARIAK

7. artikulua

a) Higiezina hirigintza, eraikuntza eta higiezinaren promozioa enpresen jardueraren xedeko higiezin bada —bai eraiki berria, bai eraikitzearen pareko eraberritzea izan duen eraikina— eta beren ibilgetuko ondasunekoak ez bada, hobari hauek aplikatuko dira zerga-kuota osoan, baldin eta interesatuek hala eskatzen badute obrak hasi baino lehen:

%90eko hobaria 3 urteko epean babes ofizialeko etxebizitzetarako. Gainerako higiezinari, %90ekoa lehen urtean, %80koa bigarren urtean eta %70ekoa hirugarren urtean.

b) Subjektu pasiboak familia ugariko titularrak badira, hobari bat izango dute zergan, seme-

3.-La determinación de la cuota de este Impuesto se obtiene aplicando a las Bases Imponibles expresadas en los apartados anteriores los tipos de gravamen respectivos, fijados en el art. 2º de esta Ordenanza.

Artículo 4. Recargo *

Suprimido

Artículo 5. Exención del Recargo *

Suprimido

IV. NORMAS DE GESTION

Artículo 6.

1.-Las facultades de gestión, liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto, podrán delegarse en la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los términos, contenido y alcance que el Ayuntamiento Pleno determine, suscribiendo al efecto el oportuno convenio.

2.-El acuerdo municipal adoptado se publicará en el B.O.G. una vez aceptado.

V. BONIFICACIONES

Artículo 7.

a) Para los inmuebles que constituyan el objeto de la actividad de las empresas de urbanización, construcción y promoción inmobiliaria tanto de obra nueva como de rehabilitación equiparable a ésta, y no figuren entre los bienes de su inmovilizado se aplicarán las siguientes bonificaciones, siempre que así se solicite por los interesados antes del inicio de la obra:

El 90% durante 3 años a las viviendas de Protección Oficial. Para el resto de los inmuebles el 90% el 1.º año, el 80% el 2º y el 70% el 3º.

b) Se aplicará una bonificación en el impuesto a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la

alaben kopuruari eta etxebizitzaren metro koadro erabilgarriei erreparatuta, 002 eranskinaren azaltzen denaren arabera.

Azaldutako hobariak soilik ohiko bizilekuari aplikatuko zaizkio; halaber, titularrek ezingo dira beste ondasun higiezin baten jabe izan, beti ere ondasun honek 42.009,32 €tik gorako balio katastrala badu.

Urtarrilean eskatu beharko zaio hobaria udalari, eta eskaerarekin batera familia ugariko titulua aurkeztu beharko da.

Familia ugarien kideetako batek elbarritasun bat edo lan egiteko ezintasun bat aitorturik izanez gero, familia unitateko umeen kopuruaren arabera egokitu lekiokkeen hurrengo mailako hobaria baliatu ahal izango du.

Udalak ziurtatuko du familia ugariaren kide guztiak udal zorrik ez duela.

c)Zerga-kuota osoan %25eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebizitza egin berriek eta bai proiektuan eta bai erregistroan haiekin lotuta dauden garajeek eta trastelekuek, behin betiko kalifikazioa eman ondoren eta 2 urteko epean.

Subjektu pasiboak hobari bat baino gehiago izateko eskubidea izango balu, bakarra aplikatuko zaio, onuragarriena.

VI. AZKEN XEDAPENA

Udalbatza osoak 2013ko urriaren 30eko bilkuran onartu zuen azaldutako ordenantza fiskala. Ordenantza 2014ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta halaxe jarraituko du harik eta aldatzen edo indargabetzen den arte.

Udalbatza osoak 2018ko irailaren 26ko bilkuran

condición de titulares de familia numerosa, en relación al número de hijos y m². útiles de vivienda según figura en el anexo 002.

Para la aplicación de las bonificaciones descritas, será condición imprescindible que la vivienda objeto de bonificación sea la habitual y no ser propietario de ningún otro bien o bienes inmuebles cuyo valor catastral supere 42.009,32 €.

La bonificación se solicitará anualmente al Ayuntamiento dentro del mes de enero y junto con la solicitud deberán acreditar documentalmente su condición de familia numerosa presentando el título de familia numerosa.

Aquellas familias numerosas en las que algún miembro tenga reconocida alguna minusvalía o incapacidad para el trabajo, podrán acogerse a la categoría inmediatamente superior que le hubiera correspondido por razón del número de hijos.

El Ayuntamiento comprobará que todos los miembros de la unidad familiar estén al corriente del pago de las deudas municipales.

c)Una bonificación del 25% de la cuota íntegra del impuesto a las viviendas de protección oficial de nueva construcción, así como a los garajes y trasteros vinculados a las mismas, en proyecto y registralmente, una vez que se otorgue la calificación definitiva y durante un período de 2 años.

En el supuesto en que tuviera el sujeto pasivo derecho a más de una bonificación, solamente se le aplicará una, la que resulte más beneficiosa al contribuyente.

VI. DISPOSICION FINAL

La Ordenanza Fiscal transcrita fue aprobada por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 30 de octubre de 2.013 y surtirá efecto a partir de 1 de enero de 2014 continuando aplicándose en tanto no se acuerde su modificación o derogación.

Los tipos de gravamen contenidos en el Anexo

onartu zituen azaldutako 001 eranskinean jasotako zerga-tasak (azken horiek ordenantzaren barruan sartzen dira) eta 2019ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. (GAO 2018/11/30).

001 fueron aprobados por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 26 de septiembre de 2018 y surtirán efecto a partir de 1 de enero de 2019. (BOG 30/11/2018).

7 artikulua hau 2018ko irailaren 26ko Osoko Bilkuran onartu zen eta 2018ko urtarrilaren 1an sartuko da indarrean. (GAO 2018/11/30).

El artículo 7 se aprobó en el Pleno del 26 de septiembre de 2018, entrando en vigor el día 1 de enero de 2019. (BOG 30/11/2018).

*4 eta 5 artikulua hauek, 2015eko abenduaren 15eko Osoko Bilkurak ezabatzea onartu zuen eta 2016eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. (GAO 2015/12/22).

*Se eliminan los artículos 4 y 5 por acuerdo del Pleno del 15 de diciembre de 2015, entrando en vigor el día 1 de enero de 2016. (BOG 22/12/2015).

5 eta 7 artikulua 2014ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran onartu ziren eta 2015eko urtarrilaren 1an sartuko dira indarrean.

Los artículos 5 y 7 se aprobaron en el Pleno del 15 de diciembre de 2014, entrando en vigor el día 1 de enero de 2015.

02.01.- Eranskinak

02.01.- Anexos

02.01.001 - Ondasun higiezinaren gaineko zerga. Karga-tasak		02.01.001 - Impuesto sobre bienes inmuebles. Tipos de gravamen	
